



EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2020-2021eko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 2. behin-behineko proposamena egiten duena.

2020ko uztailaren 28ko aginduaren bidez (2020ko abuztuaren 24ko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2020-2021eko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2020ko uztailaren 28ko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

#### EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko bigarren proposamenaren berri ematea 2020-2021eko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

Bigarren artikulua.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a

Miren Artaraz Miñón  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria